

EKAINAK 28ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, LGTBIAQ+ KOLEKTIBOAREN SEXU ASKAPENAREN ETA HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Ekainaren 28an, LGTBIAQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunean, aniztasunetik eskubide eta bizikidetzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, kolektibo horren eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatuz. Jardunaldi hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik benetako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogoraraztea ere bada.

Funtsezkoa da injustiziaren aurrean ahotsa altxatzea eta gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa eta aniztasuna errespetatzen duena eraikitzen laguntzea. Ekintza kolektiboaren bidez bakarrik egin ahal izango dugu aurrera aldaketa erreal, sakon eta iraunkor baterantz, norbanakoaren konpromisotik hasi eta politika publikoetaraino.

Irungo Udaletik badakigu azken urteotan sexu- eta genero-aniztasunaren onarpena handitu egin dela, eta aurrerapen hori hainbat pertsona, elkarte, erakunde, kolektibo eta erakunderen etengabeko lan konprometituari esker lortu dela, hainbat esparrutatik kontzientziak ikusarazten, sentsibilizatzen eta eraldatzen lagundu baitute. Prozesu horretan, euskal gizarteak erakutsi du gai dela aurrera egiteko, oztopoak hausteko eta guztiontzako askatasun-eremuak irekitzeko.

Gaur egun harrotasunez esan dezakegu gizarte bat eraikitzen laguntzen ari garela, non pertsona bakoitza izan daitekeen eta bizi daitekeen armairurik eta loturarik gabe, aurreiritzirik, estigmatik eta beldurrik gabe. Baina badakigu oraindik bide luzea dagoela egiteko. Babes-keinu bakoitza, ikusgarritasun-ekintza bakoitza, LGTBIAQ+ eskubideen aldeko hitz bakoitza funtsezko urratsa da lortutako lorpenak sendotzeko eta aurrera egiten jarraitzeko.

Irungo Udalak konpromiso sendoa hartzen jarraitzen du LGTBIAQ+ kolektiboko pertsonentzat erreferentziazko gune bat sortzen jarraitzeko, LGTBIAQ+ kolektiboen errealitateak ikusarazteko rolak eta estereotipoak ezabatzeke, eta sexu- eta genero-aniztasunari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak sustatzeko.

Horregatik guztiagatik, herritar guztiak sentsibilizazio- eta aldarrikapen-ekitaldietara batzea gonbidatzen ditugu, LGTBIAQ+ pertsonen eskubideen defentsa eta sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko borroka irundar gizartearen identifikazio-elementu izan daitezen.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu LGTBIAQ+ eskubideen aldeko borroka herritar guztien erantzukizuna dela. Ezin dugu onartu gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, elkarrekin eraikiz eta lan eginez, etorkizunean pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi gaitezen.

Udalak hiriko LGTBIAQ+ kolektiboarekin duen koordinazioari esker, aurten udaletxeko fatxadak bandera estreinatuko du. Alde batetik, marroia eta beltza batzen dira, arraza guztiak barne hartzen dituzten koloreak, eta, bestetik, kolore arrosak, zeruko urdina eta zuria agertzen dira, pertsona transgeneroen bandera osatzen dutenak. Gainera, triangelu horia eta zirkulu morea ere baditu, pertsona intersexualei ikusgarritasuna emateko.

Irunen, 2025eko ekainaren 27an